



GESTION INTÉGRÉE  
DU CYCLE DE L'EAU



# L'eau au Pays Basque

COMMENT  
NOUS LA  
DISTRIBUONS

COMMENT  
NOUS LA  
TRAITONS

#ASSAINISSEMENT

## L'expansion démographique de notre territoire a considérablement augmenté nos besoins en eaux. Et si nous consommons davantage, nous devons également assurer la bonne gestion des eaux usées.

Tout cela nécessite des équipements complexes et une rigueur de chaque instant afin de garantir :

- ◆ D'une part, une distribution d'eau potable à tous les consommateurs : foyers, bâtiments du secteur publics (hôpitaux, école, etc.) et du secteur privé (entreprises, commerces, infrastructures touristiques) ;
- ◆ D'autre part, un traitement optimal des eaux usées, en toute sécurité et sans impact sur l'environnement.

## La politique de l'eau, le premier poste d'investissement de la Communauté Pays Basque.

En 2021, l'agglomération a investi près de 90 millions d'euros dans la gestion de l'eau (assainissement, eau potable, gestion des milieux aquatiques, prévention des inondations).


## Les unités de traitement d'eau

Au Pays Basque, l'eau potable distribuée est prélevée pour moitié par des captages souterrains et pour l'autre par des captages en rivière.

La Communauté Pays Basque assure l'exploitation et la surveillance de 136 points de captage.

L'eau du robinet est obligatoirement de qualité comparable à celle en bouteille. Elle fait pour cela l'objet de traitements adaptés.

- ◆ Les eaux usées sont acheminées via des réseaux d'assainissement afin d'être traitées puis restituées dans le milieu naturel une fois épurée.



## Les stations d'épuration traitent les eaux usées

Le Pays Basque compte 117 stations d'épuration de tailles et aux procédés techniques différents.

- ◆ Les 16 plus grosses installations traitent à elles seules plus de 90 % des eaux usées du territoire.
- ◆ Au total, 100 millions de litres d'eaux usées sont traités chaque jour. C'est l'équivalent de 45 piscines olympiques !



## Qu'entend-on par « eaux usées » ?

### On distingue :

- ◆ Les eaux domestiques (tout ce qui sort de nos logements) et les eaux assimilées domestiques (camping, restaurant, commerce, etc.).
- ◆ Les eaux industrielles.

### Comment sont-elles collectées ?


Derrière le cycle de l'eau se cachent des infrastructures complexes, qui se veulent les plus performantes et les plus discrètes possibles. À commencer par un réseau sous-terrain de canalisations qui maille le territoire. Plus de 2000 kilomètres de conduits à entretenir et développer dirigent les eaux usées vers les stations d'épuration.

## Assainissement pour tous !

**L'assainissement est une obligation pour tous les logements, y compris ceux qui ne sont pas connectés au réseau. Dans les zones où l'habitat est dispersé, les habitants ont parfois leur propre système d'assainissement. L'agglomération intervient pour contrôler ces systèmes non collectifs et vérifier leurs incidences sur la qualité des milieux aquatiques.**

## Pourquoi collecter et traiter les eaux usées ?


### L'enjeu est de préserver à la fois...

- ◆ La santé publique ;
  - ◆ La ressource eau ;
  - ◆ Le patrimoine naturel et la biodiversité de la faune et de la flore ;
  - ◆ La qualité de vie ;
  - ◆ La dynamique économique et touristique.
- 

## Comment fonctionne une station d'épuration ?


### Dégrillage

À leur arrivée, les eaux usées sont filtrées grossièrement afin de séparer les corps flottants et les gros déchets (généralement supérieurs à 6 mm, cette taille peut varier selon les équipements).




### Dessablage/dégraissage

Les sables se déposent ensuite en fond d'un décanteur. Ils sont alors lavés à l'eau industrielle avant d'être évacués. Les graisses flottantes sont, quant à elles, collectées pour être traitées sur site après avoir été oxygénées et renvoyées dans la filière de traitement.




### Tamisage

Le tamisage permet de retenir les éléments encore plus fins, supérieurs à 1 mm.




### Au travail les bactéries !

L'eau séjourne ensuite dans un bassin d'aération où elle subit un traitement biologique. Les bactéries alimentées en oxygène par des suppresseurs d'air dégradent les matières polluantes pour former les "boues".




### Ultimes filtrages

En fonction de la sensibilité du milieu récepteur, certaines stations d'épuration peuvent être équipées de membranes microporeuses qui permettent d'obtenir un traitement poussé et une eau très épurée. Ces membranes peuvent retenir des particules d'un micron!



### Et enfin

Après clarification et contrôle de la qualité de l'eau compatible avec le milieu récepteur, l'eau épurée est rejetée dans le milieu naturel.




## Une eau rendue saine à l'environnement

*Avant d'être restituée aux rivières ou en mer, l'eau est scrupuleusement contrôlée par un laboratoire interne. Il analyse régulièrement ces eaux traitées (selon des normes européennes et des prescriptions locales fixées par arrêté préfectoral) pour vérifier la qualité de l'eau rejetée et ajuster les traitements.*

*Des contrôles sont également réalisés directement dans le milieu naturel. Les exigences de mesures peuvent être augmentées localement en fonction des écosystèmes à préserver et de leur sensibilité.*



Tous les modules qui composent la station d'épuration de Saint-Bernard sont couverts. Il s'agit de réduire au maximum l'impact olfactif. L'air est ainsi capté puis traité avant son rejet dans l'atmosphère.




San-Bernarteko araztegia osatzen duten modulu guztiak estaliak dira. Usaimen helburua. Horrela hartua den airea tratatzen da atmosferara askatua izan aitzin.




### A TRAITEMENT DE L'AIR

TRAITEMENT DE L'AIR




### B PRODUITS DE CURAGE

KARRAKATZE-PRODUKTUAK



### C MATIÈRES DE VIDANGE

HUSTE-GAIEN HARTZEA



- ① POSTE DE REFOULEMENT  
ARRA-IGORTZE POSTUA
- ② STOCKAGE TEMPS PLUIE  
EURIALDIETAKO BILTEGIA
- ③ POSTE TOUTES EAUX  
UR OROTAKO POSTUA
- ④ DÉGRILLAGE  
BAHEKETA LARRIA
- ⑤ DÉGRAISSEUR / DESSABLEUR  
KOPEA KENTZEKO TANGA /  
HONDARRA KENTZEKO TANGA


- ⑥ BIOMASTER
- ⑦ TAMISAGE  
BAHEKETA XEHEA
- ⑧ BASSINS D'AÉRATION  
AIREZTATZE-URMAELAK
- ⑨ MEMBRANES  
MINTZAK

- ⑩ DÉSHYDRATATION DES BOUES  
LOHIEN DESHIDRATATZEA
- ⑪ BÂCHE EAU TRAITÉE  
UR TRATATUKO TANGA
- ⑫ CANAL DE COMPTAGE  
KONTAKETA UBIDEA
- ⑬ ADOUR  
ATURRI

## Nola funtzionatzen dute araztegiek?


### Baheketa larria

Iristen direnean, ur zikinak larriki iragaziak dira, ur gainean dabilen objektuak eta hondakin handienak bereizteko (6 mm-tik gorakoak, nahiz eta ekipoen arabera neurria alda daitekeen).




### Hondarra/koipea kentzeko tanga

Hondarrak dekantatze-ontzian hondoratzen dira. Industriako urekin garbituak dira orduan, kanporatuak izan aitzin. Flotatzen duten koipeak, bilduak dira eta bertan tratatzen dira oxigenatuak eta tratamendu ibilbidera arra-igorria izan ondoren.




### Baheketa xehea

Baheketa xeheak, 1 mm-tik gorako, elementu ttipiakoak, atxikitzea ahalbidetzen du.




### Bakterioak lanean!

Ondotik, aireztatze urmaela batean geratzen den urak tratamendu biologikoa izaten du. Aire depresoreek oxigenoz elikaturiko bakterioek gai kutsatzaileak degradatzen dituzte, "lohiak" sortzeko.



### Azken iragazketak

Ingurune hartzailearen sentikortasunaren arabera, araztegi batzuk mintz mikroporotsuz hornituak izan daitezke, tratamendu hobetua eta ur arras depuratua lortzeko. Mintz horiek mikra bateko partikulak atxikitzen gai dira!



### Eta bukatzeko

Ingurunearekin bateragarria den uraren kalitatea lortu eta kontrolatu ondoren, ur araztua ingurune naturalera itzultzen da.



## Ingurumenera garbiturik itzulia den ura

*Ibaietara edo itsasora itzuli aitzin, ura zorrotasun osoz kontrolatzen du barne-laborategi batek. Tratamenduko ur horiei ohituki egiten zaizkie (Europako araudiari eta prefetura-aginduak zehaztutako tokiko araudiari jarraiki) naturara itzuliak diren uren kalitatea egiaztatzeko eta tratamenduak egokitzeko.*

*Kontrol horiek ingurune naturalean ere egiten dira zuzenean. Neurrien zorrotasuna tokika emendatua izan daiteke zaindu behar diren ekosistemen eta haien sentiberatasunaren arabera.*



## Zer uler dezakegu “ur zikinak” terminoarekin?

### Bereizten ditugu:

- ◆ Etxe-urak (gure etxeetatik ateratzen dena) eta etxeko uren parekoak (kanpinetakoak, jatetxeetakoak, saltegiakoak, etab.);
- ◆ Industria-urak.

### Nola bilduak dira?


Ur-zikloaren gibelean, azpiegitura konplexuak daude, ahalik eta emaitza onekoak eta diskretuak. Hasteko, lurraldea saretzen duen lurpeko hoditeri sarea dugu. Ur zikinak araztegiatarantz zuzentzen dituzten eta mantentzeko eta garatzeko diren 2000 kilometro baino gehiagoko hodiak.

## Saneamendua ororentzat!

Saneamendua, baitezpadakoa da bizitegi guzientzat, sareari lotuak ez direnentzat ere. Habitata barreiatua den lekuetan, biztanleek beren saneamendu propioa izaten dute kasu batzuetan. Horietan, Elkargoak sistema ez-kolektibo horiek kontrolatzen ditu eta haiek ur inguruneetako kalitatean duten eragina egiaztatzen du.

## Zergatik ur zikinak bildu eta tratatu?

### Ondoko hauen babestea da erronka:

- ◆ Osasun publikoa;
  - ◆ Uraren baliabidea;
  - ◆ Ondare naturala eta faunaren eta landaretzaren bioaniztasuna;
  - ◆ Bizi kalitatea;
  - ◆ Dinamika ekonomikoa eta turistikoa.
- 

## Gure lurraldearen hedapena demografikoak anitz emendatu du uraren beharra. Eta gehiago kontsumitzen badugu, ur zikinaren kudeaketa egokia ere bermatu behar dugu.

Horrek guziak muntadura konplexuak eta une bakoitzeko zorroztasuna behartzen ditu ondoko hauen segurtatzeko:

- Alde batetik, edateko uraren banaketa kontsumitzaile guziei: bizitegiak, eremu publikoko eraikinak (erietxeak, eskolak, etab.) eta baita eremu pribatukoak ere (enpresak, saltegiak, azpiegitura turistikoak);
- Bestalde, ur zikinaren tratamendu optimoa, segurtasun osoan eta ingurumenarentzat ondoriorik gabe.

## Uraren politika, Euskal Hirigune Elkargoaren lehen inbertsio postua da.

2021ean, Euskal Elkargoak 90 milioi euro inbestitu ditu uraren kudeaketan (saneamendua, edateko ura, ur inguruneen kudeaketa, uholdeen prebentzioa).


## Uraren tratamendurako sailak

Ipar Euskal Herrian, banatua den uraren erdia lurpeko harguneetatik bildua da eta beste erdia ibaietatako harguneetatik.

Euskal Hirigune Elkargoak 136 ur-hargune horien erabilera eta zaintza bermatzen ditu.

Dutxuluko uraren kalitatea botilako uraren parekoa izan behar du nahitaez. Hori da, hain zuzen, tratamendu egokituen xedea.

- Ur zikina saneamendu ubideen saretik bideratzen da tratatua izateko, arazi ondoren ingurumenera itzulia izan aitzin.



## Araztegiek ur zikinak tratatzen dituzte

Ipar Euskal Herrian 117 araztegi daude, neurri eta tratamendu-prozedura tekniko oso anitzekoak.

- 16 araztegi handienek lurralde osoan ur zikinaren %90a baino gehiago tratatzen dute.
- Orotara 100 milioi litro ur zikin tratatzen dira egunean. 45 igerileku olinpikoren baliokidea da hori!



URAREN ZIKLOAREN  
KUDEAKETA INTEGRATUA



# Ura Ipar Euskal Herrian

NOLA  
BANATZEN  
DUGU

NOLA  
TRATATZEN  
DUGU

#SANEAMENDUA

 Pays  
Basque  
euskal  
herria

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION  
—  
HIRIGUNE  
ELKARGOA